

Paketazoaren aurka, greba orokorra

GREBA Orokorra ezinbesteko tresna dela eta izan behar duela aurrerantzean ere, begi bistan dagoen gauza da. Begirada bat ematea besterik ez, berehala jabetuko zenbaitekin sakontasuna duen bai ugazaba eta bai Gobernutik datozkigun erasoak.

Aspalditik sartua dugu Euskal Herria desindustrializazio bide bortitzean, hara hor altzairugintza sektorea orohar, utziz gintza, esku erreminta, elektrogailugintza, arrantza eta nekazal sektoreen errekonbertsioa ere. Jakina da neurri guzti hauek ez dira kasualitatez ematen ari. Gobernu autonomikoek bere ardura badutela, nola ez Madrilloak ere, bainan azken finean, neurrien zorrotasunak Bruselastik zuzenduak izan ohi dira, eta beratan indar ekonomiko multinazionalen interesak dira nagusi.

Europa berri bat, hobeto esanda, hamabiek osatutako Europa berri eta maltzurrago bat ari da gertatzen, eta hari berari helduta dijoa gure herria ere, eta berekin herritarrak. Ezin ahaztu azken bost urteetan Europa berri honetan milioi batean gehitzean joan dela urteoro pobrezia, egun berrogeitamar milioietatik gora direlarik.

Zenbait sektore industrial nagusi desindustrializatzaren eskutik, diru publikoaren erabilpen pribatizatzailearen eskutik, produktibismoa indartzearen eskutik, gutxiengoen ongizatea ziurtatuko duen gizartea ari da gauzatzen, gehiengoa larritasunean murgiltzen doalarik.

Guzti hau errealtatea izan dadin, Paketazoa etorri zaigu gainera: lehendik, noiz-behinkako kontratazioa hain emankorra egiten duen legislazioa; Maastricht-eko akordioa eta berari atxikia, Hiritar Segurta-

sun lege berria; langabezien prestakuntzak murrizten dituen legea; Greba Legea; Osasungintza Publikoa pribatizatzeko lehen pausoak;...

Nori erasotzen die gehienbat Paketazo guzti honek? Ezin ahaztu, aurrez langabeziaren —% 16— zama daramagula, kopurua bera nahiko egonkorra delarik, eta ondorioz, langabezia dagoen gero eta jende gehiago sosik ere kobratzen ez duena dela. Noiz-

EUROPA BERRI BAT, HOBETO ESANDA, HAMABIEK OSATUTAKO EUROPA BERRI ETA MALTZURRAGO BAT ARI DA GERTATZEN, ETA HARI BERARI HELDUTA DIJOA GURE HERRIA ERE.

behinkako lan kontratuen protagonista eta biktima gaztedia da bereziki. Badira Euskal Herrian 500.000 emakume etxeko lanetan aritzen direnak, inongo errekonozimendurik gabe. Egun % 35-40 pobrezian izanik, kopuru hori handitzeko arrisku bizian da aurrerantzean.

Desberdintasunak areagotzeko bidea erreztuko duen gizartea egituraren barnean

gaude kokatuak. Hona hemen adibide bat: Banketxeek aurtengo lehen hiru hilabeteetan 137 mila milioitako irabaziak izan dituztelarik; bestalde, eta azken dekretua kontuan izanik, hilean 100.000 pezetetako soldata duen batek eta lan kontratua sei hilabetea, ondorioz, langabeziaren % 100a galduko du (berrehun mila pezetatik gora), edota, urtebeteko kotizazioa izan duenak, % 42a galduko du.

Hau ez da posible, ez da posible ekonomi orokor bat salbatu nahi izatea —enpresariena, bankeroena, ziurtasun ekonomikoan txertaturiko kapa soziala, gutxiengo batena azken finean—, errekurto sozialak murriztearen truke, gehiengoa pobrezia bidean ipintzearen truke. Gehiengo honen amorrak eta karraxiak izan behar dute protagonista Greba Orokorrean. Errebelatu, zer arraio, onartezina da Solchagak jan-txakurrekin gonparatzea langabezia dagoena.

Egun nagusitzen ari den politikak zera adierazten digu, gizartea ez dela existitzen, indibiduo bako bako, historiaren motor bakarra merkatua dela, eta bere barnean indartsuenak bakarrik dutela tokia. Los Angeles-eko azken gertakari bortitzak honen ezaugarri ditugu.

Ezaugarri hauetaz inguratuta egonik, Langile eta Sindikal Mugimenduak aldarrikatu beharreko gauzik garrantzitsuena sektore defaboratuekiko elkatasuna litzateke. Ahaztu ezinezkoa da, sistemak duen akatsik handienetakoa hori dela, eta bestalde, sektore sozial hauen partaidetza gabe ez dela benetako aldakuntzarik lortuko.

MANOLO BURGETE
ESK-CUIS-EKO PARTAIDEA

Euskararik gabe Euskal Herririk ez

BADIRUDI ikastolen elkarteak ekintza handi bati heldu nahi diola estu eta bizi. Ardanza jaunari, Lehendakariari alegia, Buesaren dimisioa eskatu, sinadurak biltzeari ekinez.

Ezin ezkuta ezin atseginagoa gerta zaidala berria. Arrazoi askorengatik gertatu ere. Arrazoi gutxiagorekin ibiliak gara antzeko ekintzatan.

Izan ere, zer dakarte berekin Buesaren planteamendu eta jokabideak?

Ezagunak dira planteamenduak. Euskaldunok gara erdaldunen diskriminatzaile, euskara dala-eta. Barre egin eraztekoa ere balitzateke hori, azpian baina begibistan daraman jarrera ironiko, sofista, engainuzko, ziniko eta zikina ikusiko ez bagenu. Euskaldunok alegia diskriminatzaile! Euskararen legeak eta guzti, erdaraz bizitzera beharturik gauzkatzenok! Izan ere, zein hizkuntzatan, zein kulturaren eraginpean egosten dira gure lurraldean bertan —Euskal Herrian esaterik bai ote?— gure bizimodua arautzen, baldintzatzen eta erabakitzen duten ekintza nagusiak?

Ezaguna da Buesaren jokabidea ere. Gure lurraldeko heziketa-alorra berak arautzen, baldintzatzen eta erabakitzen du. Horreta-

rako, bere inguru guztia jende erdaldunetz josi du. Jende horri euskaraz eta euskal kulturaren arabera gauzak bideratzeko eskatzea elorriari pikuak eskatzea da.

Ezin beltzago daukadala gauza? Ezin ukakorrago pintatu dudala? Ireki begi-bellarriak, eta oharteman in situ gauzak betaurreko kedarreztatuak kenduta.

Askotan esan izan da «euskararik gabe Euskal Herririk ez». Buesaren ikusi eta esaera hori kontuan hartuz gero, ezinbestekoak ikastolaren elkarteak hartutako ekimena bezalakoak. Soldaduskaren kontrako kontzientzi eragozpena eta intsumisioak bezalakoak onartzekoak baldin badira —eta gure artean gehienek onartzen dituzte horiek—, are gehiago —esango nuke— Buesaren adierazten duena bezalako politika antieuskaldun amorratuaren aurka.

Poztekoa da ikastolen elkartearen ekimena beste arrazoi honengatik ere: ikastolaren lana, irakaskuntzara mugatu gabe, heziketa ere hedatzen duela adierazten duelako.

Buesaren dimisioa eskatzeak arazo politikoak dakarkeela? Nola ez?

Gobernua krisian legokeela Lehendakariak ikastolen elkartearen eskabide hori kontuan hartuko balu? Lehen ere jarri zuten

krisian politikoei gobernu bat, eta beren gisara konpondu zuten. Ez ote gobernu krisian jartzea Buesaren jokabidea bera ere? Ala hitz, kontu hutsa da krisi arazo hori, formalismo ala nominalismo hutsa? Auzitan —eta larri, guztiz larri— euskara dagoenean, ez luke eman behar gobernu krisian jartzea hil hala biziko gauza litzatekeenik.

Bestalde, krisian jartze hau aukera ezin hobea litzateke Joseba Arregik 'El proceso de construcción nacional' titulupean (Deia, 92-05-13) dioena martxan jarri ahal izateko, 'unidad de acción nacionalistaz' mintzo bait da. Zergatik ez ekin berriro alderdi nazionalistak batzeari? Alde horretatik funtsezko kontradikzio direnak berehala gainditzen hasteak Josebaren aipatu hitzei eta euskararen eta abertzaletasunaren aldeko beste milaka deklaraziori sinesgarritasun apurren bat emango lieke; garaiz litzateke oraindik ere. Ad calendas graecas uzteak, berri, putzaldi huts egingo litzuzke hitz eta deklarazio horiek guztiak.

Alde horretatik ere baikor hartzeko litzateke ikastolen elkartearen ekimena.

DIONISO AMUNDARAIN
ITZULTZAILEA

BERRIAKZIRI




JON AZUA
EAEko Industria sailburua
DEIA

«Ni, Jaurizaritza naitzen aldetik, sinetsirik nago gure industriarentzat ageri diren bide onez»



JOHN KENNETH GALBRAITH
Ekonomialaria eta Nobel sariduna
THE GUARDIAN

«Lanik ez bada ezin dira langabezi sariak kendu»



KARLOS GARAIKOETXEA
Eusko Alkartasunako lehendakaria
EL DIARIO VASCO


«Europar inork ez digu arazo nazionala konponduko»



ARANTZAZU LOIDI
Bertsolaria
ARGIA

«Erreflexioa egiteko behar handia dago bertsolaritzaren inguruan»

ZAKILIXUT



© Olariagak